

1998ko UZTAILAREN 16ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hamazortziko uztailaren hamaseiean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira agertu, nahiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTEN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

2.- GASAREN HORNIDURANTZAKO LUR EROSKETA

Udal honek, Lizartzako Udalerrian etxe eta merkataritza erabileretarako propano gas komertzial kanalizatua hornitu eta banatzeko Proiektua duela, Repsol.ek egindako proiektuaren arabera, eta hemen, Castor Olaetxea Garaikoetxearen jabetzakoa den, Aztinako Etxaburua izeneko terrenoen okupazioa azaltzen denez, Batzar hau osatzen duten guztien adostasunez, terreno hoiengatik erostea, aho batez erabakitzen da, era honetan:

1.- Lizartzako Udalerrian etxe eta merkataritza erabileretarako propano gas komertzial kanalizatua hornitu eta banatzeko, Lizartzako Herrian kokatuta dagoen terreno hau erostea onartzen da:

Castor Olaetxea Garaikoetxeari, Aztinako Etxaburua terrenoa, 6. inskrip. 479 Finka, 129. Folioa, 11. Liburua, 202 Tomoa. erregistroko zenbakiekin, 1626,60 m² dituen, Ifarratik: herri bidea; Hegoatik: Iribarren; Ekialdetik: Venta-enea eta Mendebaldetik: Jose Antonio Mintegiaga.

2.- Saltzaileekin ados, terrenoaren prezioa, metro karratuko mila eta berrehun peztatan jartzea erabakitzen da.

Honenbestez, salerosketako kontratoaren salneurria, hau da:

a) Lizarzako Udalerrian etxe eta merkataritza erabilere-tarako propano gas komertzial kanalizatua hornitu eta banatzeko, Castor Olaetxea Garaikoetxeari erositako lurrarengatik, MILIOIA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAIKA MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEI (1.951.920,-) pezta.

3.- Aurreago onartu den sal-erosketa hitzarmenak behar duen jendaurreko eta norbanakako agiriak emateko, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE ahalmenak ematea, erabakitzen da.

3.- UEMAren MOZIOA OSASUN ZENTROETAN ZERBITZUA EUSKARAZ IZATEKO ESKUBIDEAREN ALDE

Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroako zonalde euskaldunean bizi diren herritarrek administrazioarekin harremanak euskaraz izateko eskubidea dute. Eskubide hauek gauzatu ahal izateko administrazioak neurriak hartuko dituela ere diote indarrean dauden lege ezberdinek. Bada, hala ere, esparru bat, euskaldunak erabat diskriminatuak direna: Osasun Zerbitzua.

Izan ere, Osasun Zerbitzuek, kasu gehienetan, euskaldunak euskaraz tratatzeko ezintasuna erakusten dute. Oraindik, euskaldun oro, eta batez ere Udalerri euskaldunetako zahar eta haurrak erabat diskriminatuak daudela esan daiteke osasun zentroetan, ezen, kasu askotan guraso eta senideek itzultzaile lanetan jardun behar izaten baitute beren etxeko gaixoeekin. Sendagile eta erizain ez euskaldunak ahalik eta denbora gutxien egoten dira haur eta zahar euskaldun askorekin komunikazio arazoak sortzen zaizkielako. Hau da, zerbitzu publikoa ematen duten sendagile, pediatra, erizain, zeladore eta abarrak gai ez direlako ofiziala den euskaraz aritzeko. Eta hau, Euskal Erkidego Autonomoan eta Nafarroako anbulategi eta ospitale guztietan gertatzen da.

Hau larria da, ze, sendakuntza aloan sendagile, erizain, pediatra ... eta gaixoen arteko komunikazioa faktore erabakigarria izan baitaiteke edozein gaixotasun gainditzeko. Beraz, euskaldunei osasun zerbitzua euskaraz ematen ez zaien bitartean, lege-hauste izatez gain, zerbitzu kaskarra eta diskriminatzailea izango da euskaldunarentzat, pertsona den heinean, sendagile eta erizainen aldetik zerbitzu eta tratu duin, lasai, goxo eta baketsua ematen ez zaizkion bitartean.

Esan daiteke, beraz, euskaldunei zerbitzua euskaraz eskaintzea ez dela euskaldunei emandako pribilegioa, eskubidea eta osatzeko baldintza baizik. Osasun publikoak guztiei eman behar die zerbitzua, herritar guztiak joaten baikara behin eta berriz anbulategi eta ospitaleetara eta, beraz, euskararen normalizazioa udal eta eskualde euskaldunetan erabat lehentasunezkoa da.

Hau guztia aintzat harturik, Osoko Udalbatza honek ondorengo erabakia hartzea proposatu da:

- 1.- Udalen ordezkari gisa kezka eta haserrea adieraztea osasun arduradunei, euskal herritarrok ditugun hizkuntz eskubideak bermatzeko PLANGINTZA OROKOR BAT martxan ez dutelako oraindik.
- 2.- PLANGINTZA orokorra diseinatzeaz gainera, aurtan, 1998an, hurrengo bi helburu hauek betetzeko premiazko neurriak har ditzatela eskatzen diegu osasun arduradunei:
 - 2.1.- Udal eta eskualde euskaldunetan ematen den osasun zerbitzua euskaraz ematea.
 - 2.2.- Ospitaleetan dauden informazio, larrialdi eta pediatria zerbitzuak euskaraz ematen hastea.

Horretarako, hona hemen, eskatzen ditugun premiazko neurriak:

- a) Aurrerantzean, Udal euskaldunetara (ordezkapenak barne) sendagile, erizain, pediatra... langile euskalduna bidaliko da.
 - b) Dagoeneko, lanpostu finkoa duten "ez euskaldunak" liberatzea euskara ikasteko.
 - d) Lanpostu finkoa ez dutenak, baina hiru urte baino gehiago daramatenak herrian liberatzea euskara ikasteko.
 - e) Lanpostu finkoa ez duenak, baina hiru urte baino gutxiago daramatenak herrian bi orduko euskara-ikastaroak hartzean hastea.
 - f) Hauetatik, baten batek euskara ikasi nahi ez balu herri ez euskaldunera aldatzeko aukerak ahalbideratzea.
 - g) Ospitaleetako harrera, larrialdi (112 larrialdiak barne) eta pediatria zerbitzuak euskalduntzeko plangintzari lehentasuna ematea.
- 3.- Osoko Udalbatza honen erabaki hau Osasun saileko ardura-dunei eta Hizkuntza Politikarako arduradunei igortzea.

Osasun zentroetan zerbitzua euskaraz izateko eskubidea bermatzeari buruz, UEMAk aurkeztu duen mozioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

4.- TOLOSARA PLATAFORMAREN MOZIOA

Duela urte eta erditik hona, 1997ko udazkenetik hain zuzen, Tolosaldeko euskal preso guztien eskubideen alde lanean ari den TOLOSARA plataformak manifestazio legalizatua eta isila antolatu du.

Baterakoei izatea nahi dugun manifestazio horren helburu bakarra euskal preso guztien giza eskubideak errespetatu ditzaten aldarrikatzea da. Euskal preso guztien oinarritzko giza eskubideak 1995eko abenduaren 29an Tolosako Udalak

plenoan hartutako erabakia zehaztu ziren. Halaber, azken hilabete hauetan, Amezketeta, Alegi, Altzo, Aduna, Alkiza, Abaltzisketa, Asteasu, Anoeta, Albiztur, Bidegoian, Berastegi, Berrobi, Belauntza, Baliarrain, Elduain, Hernialde, Ikaztegieta, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Villabonako Udalerriek antzeko mozioa onartu dute eta gaur egun TOLOSARA plataformaren jardun-gida dira. Hona hemen erabakiaren puntuak:

- 1.- Preso zein senitartekoen oinarrizko eskubideekiko errespetu osoa.
- 2.- Indarrean dagoen elgeriaren arabera, euskal presoek kondenak jatorrian bete ditzaten eskatzea eta galdatzea.
- 3.- Berehalako askatasuna, Kartzeletako Arautegiaren 92. artikulua agintzen duenaren arabera, sendatu ezinezko gaixotasunak nozitzen dituzten edo tratamendu berezitua behar duten presoentzat.
- 4.- Zigorraren 3/4ak bete dituztenentzako baldintzapeko askatasuna, legearen aplikazioa erizpide subjektibo edo interes politikoen menpean jarri gabe.

Ondorioz, TOLOSARA plataformak ondoren zehazten den testua plenoan onar dezan eskatzen dio, Lizartzako Udalari.

- a) Udal honek bat egiten du 1995eko abenduaren 29an Tolosako Udalak plenoan hartutako erabakiarekin.
- b) Udal honek bat egiten du TOLOSARA plataformak antolatutako manifestazio legalizatu, isil eta baterakoiarekin.
- d) Aurreko puntuarekin konsekuente izanik, Udal honek goren mailako ordezkari bat bidaliko du manifestaldira eta dei egiten die herritarrei manifestazioan parte har dezaten.

Tolosara Plataformaren Mozioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

5.- KUTXAREKIN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO HITZARMENA

**LIZARTZAKO UDALA eta KUTXAREN ARTEKO
HITZARMENA
EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hamazortziko irailean

BILDURIK

Alde batetik, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE, Lizartzako Udaleko Alkatea, beronen izenean eta ordez, eta horretarako ahalmendua.

Eta bestetik, KORO LANDA LAKUNTZA Anderea GIPIZKOA/DONOSTIA KUTXAren izenean eta beronen ordezkari.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskumen eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AITORTZEN DUTE:

Lizartzako Udala, herri langile eta herritarren artean euskararen erabilera gehitu asmoz ahaleginetan ari dela eta jabetua dela, alegia, **GIPIZKOA/DONOSTIA KUTXAK** dituen bulegoak, herritar askoren topagune ezin hobeak direla euskara erabiltzeko.

GIPIZKOA/DONOSTIA KUTXA bere aldetik, bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko, euskararen presentzia ugaltzen, indartzen eta sendotzen ari dela esparru guztietan.

Nolanahi ere, Udal eta eskualde euskaldunetan euskarak trataera berezia behar du; izan ere, soziolinguistikoki euskaldunak gehiago diren eremuetan euskararen erabilerak horrela eskatzen baitu.

Aipatu beharrekoa dela, halaber, **GIPUZKOA/DONOSTIA KUTXAK**, Udalerrien, euskara, hezkuntza, kultura eta kirolaren inguruko ekimen ugari babesten dituela, **LIZARTZAKO** herrian.

LIZARTZAKO Udalak eta GIPUZKOA/DONOSTIA KUTXAK, hitzarmen honen bidez, orain arteko lankidetzak indartu eta sakondu egin nahi dutela euskararen erabilera zabaldu eta indartzeko.

Bi erakundeek ere aldi berean aitortu egin nahi dutela, alegia, **Lizartza eta Tolosako Kutxa**ko enplegatuek eta era berean Udalekoek ere, euskara erabiltzeko adierazi duten borondate eta konpromezu-mailak egin duela bideragarri hitzarmen honen gauzatzea.

Horregatik, bi erakundeek, gure hizkuntzaren zabalkuntza eta sendokuntza-prozesuan protagonista izateko eta zuzenean eskuhartzeko, ondorengo konpromezu hauek

HITZARTU DITUZTE:

- 1.- Elkarren arteko harremanak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskaraz izango dira.
- 2.- Erakunde sinatzaileok, euskara ahalik eta gehien erabiltzen saiatuko dira beren funtzionamenduko esparru guztietan eta, poliki-poliki, horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituzte.
- 3.- **Kutxa**, bere aldetik, **Lizartza eta Tolosako** bere bulegoetan bezeroekin dituen harremanetan euskararen presentzia ugaltzen ahalegin berezia egitera konprometituko da, euskaldun bezeroek erdaldunekiko parekotasuna lortu arte.
- 4.- **Kutxa**, **Lizartza eta Tolosako** bulegoetako presentzia (hormirudietan, iragarkietan, idazkietan, etb.) gehietzeko ahalegin berezia egitera konprometituko da.

5.- **Lizartzako Udala**, bere aldetik, hitzarmen honen edukia eta bere garapenaren berri herritarrei adierazteaz arduratuko da.

6.- Konpromezu hauek, hasteko, hiru urterako hartu dira eta, hitzarmen hau eraginkorra izan dadin, jarraipen-batzordea jarriko dute martxan bi erakundekok, goian aipatutako helburuak lortu eta emaitzak aztertzeko.

Kutxarekin Euskararen Erabilera Areagotzeko Hitzarmena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Era berean, Hitzarmen hori sinatu ahal izateko, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ahalmentzea, aho batez onartua izan da.

6.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Istileta Bekoa Baserriaren Sukaldeko azaleztadura berritzeko, Jose Arzadun Egiluz Jaunari baimena.

Ignacio Altuna Arraubarrenari, bere jabetzakoa den Asura Goiena Baserriari dagozkion bi lur sail, BERAZA AZPI edo MAKOTEGI, 4.650 m² neurri luze-zabalerakoa, (Pol. 1, 330 Partzela) eta ALDAI, 6.300 m² neurri luze-zabalerakoa, (Pol. 1, 346 Partzela), Baserri horretatik banandu eta bien artean, 10.906,- m² neurri luze-zabalera izango duen finka berri bat osatu ahal izateko baimena.

J.M. Calero Fernandez eta J.I. Iriondo Ugalde Jaunei, Ainene Artetxe baserrian 2 etxebizitza eraikitze baimena.

Nahitaezko Jabegokentzeerako Gipuzkoako Lurralde Epaimahaiak hartutako erabakiaren aurka, Javier Urkizar Larrarte Jaunak bidezko helegitea jarri duenez, bertan parte hartzea eta Abokatua JOSE LUIS BUENO IRAOLA eta Prokuradorea, ALBERTO ARENAZA ARTABE izendatzea erabaki da.

7.- URJENTZIZKO GAIA

Alkateak, Euskal Presoak Euskal Herrira lema, Udaletxeko orritan jartzeko proposamena, bilkura honetan urjentziz tratatzea proposatu du.

Proposamena aho batez onartua izan da.

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIA LEMA

Alkateak, Euskal Presoak Euskal Herrira lema, Udaletxeko orritan jartzea proposatu du.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.